

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak Su-hiltzaileen 17 plaza hornitzeko oposizio-deialdia egin du

Probak irailean hasiko dira, eta izena emateko epea ekainaren 20an amaitzen da

Astelehena, 2018.eko maiatzak 21

Nafarroako Gobernuak oposizio-deialdia egin du Su-hiltzaileen C mailako funtzionario-erregimeneko lanposturako 17 plaza betetzeko; txanda libreko zortzi plaza eta sustapen-txandako bederatzi plaza izango dira. Deialdia Funtzio Publikoko Zuzendari Nagusiak apirilaren 26an emandako [965/2018 Ebazpenaren](#) bidez onartu da eta Nafarroako gaurko Aldizkari Ofizialean argitaratu da. Oposizioa 2015ean deitutako 30 plazari eta 2017an deitutako 15 plazari gehitzen zaie; horietako izangaiak Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan sartzeko prestakuntza-ikastaroa garatzen ari dira egun.

Hautapen-prozesuan izena eman nahi dutenek eskaera modu telematikoan aurkeztu beharko dute [Nafarroako Gobernuko Zerbitzuen eta Izapideen Katalogoaren fitxaren](#) bitartez, maiatzaren 22tik ekainaren 20ra bitarte. Hautapen-probak aurtengo irailean hasia aurreikusten da. Oposizioaren lehen fasean hiru proba egongo dira: lehen proban, idatziz erantzun beharko da 150 galderaz osatutako galdetegia test eran; bigarrenan, berriz, proba fisiko ezberdinak garatuko dira; eta, azkenik, hirugarrenean, ariketa psikoteknikoak eta elkarriketa pertsonalak eta/edo taldekoak egingo dira.

Oposizioaren lehen fasea behin gaindituta, izangaiak gaitasun psiko-fisikoaren azterketa gainditu eta plaza hutsak hautatu beharko dituzte, azkenik oinarriko prestakuntza-ikastaroa egiteko Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan, postuan sartu aurretik.

Eskainitako plazak Barneko Zuzendari Nagusiaren apirilaren 24ko [108/2018 Ebazpenaren](#) bidez deitutako leku-aldaketa lehiaketatik ateratakoak izango dira, eta horien plaza-kopurua eta helmugak plaza hutsak hautatzeko ekitaldiaren aurretik zehaztuko dira.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria den María José Beaumont-en ustez, Su-hiltzaileen ordezkariak sindikalarekin zerbitzua bermatzeko lortutako akordioari erantzuten dio deialdiak; gainera, plantillak berak babestu zuen batzarrean.